

Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA
ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

2891

248/1990 DEKRETUA, 1990.eko urriaren 2koa, zeinen bidez hauteskundeetan hautagai aurkezten diren eta Euskal Administrazio Publikoen zerbitzura dauden funtzionarioei lizentziak ematea araupetzen bait da.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 70.2 d) atalak izaera publikoko zeregin utziezinezkoak burutzeko beharrezko den denborarako ordaindutako lizentzia emateko aukera aurrikusten du; kasu horretan sartzen da funtzionarioak bera hautagai deneko hauteskunde kanpainatan parte hartzea.

Lizentzi horiek emateko orduan Euskal Administrazio Publiko guztietan erizpide bateratu bati jarraiki jokatzeko beharra dela eta, horien iraupena eta horietaz baliatzeko zein baldintza bete behar diren araupetzen da Dekretu honen bidez.

Horren ondorioz, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren proposamenez, eta 1990eko urriaren 2ko bilkuran Jaurlaritza Kontseiluak aztertu eta onartu egin zuelarik, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengo atala.— Euskal Administrazio Publikoen zerbitzura egonik uztailaren 6ko 6/1989 Legearen aplikazio esparruan sartuta dauden funtzionarioek, Korte Nagusietako Diputatu eta Senadoretarako hauteskundeetan, Europako Parlamenturako hauteskundeetan, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, beste Autonomi Elkarteren batetako Asanblea Legislatiborako hauteskundeetan edo Korporazio Lokaletako kideetarako hauteskundeetarako aurkezten baldin badira, ordaindutako lizentzia jasotzeko eskubidea izango dute, hauteskunde kanpainak dirauen bitartean.

Bigarren atala.— Administrazio bakoitzean eskudun den organuak emango du lizentzia, interesatuak hala eskatuta eta dagokion Hauteskunde Batzordeak hautagai proklamatu izana egiaztatzen duelarik.

Hirugarren atala.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra Dekretu honek.

Gasteiz, 1990.eko urriak 2.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Zuzentza
eta Autonomi Garapenerako Saila
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y DESARROLLO AUTONOMICO

2891

DECRETO 248/1990, de 2 de octubre de 1990, por el que se regula la concesión de licencias a los funcionarios al servicio de las Administraciones Públicas Vascas que se presenten como candidatos a elecciones.

El artículo 70.2 d) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, prevé la concesión de licencia retribuida por el tiempo indispensable para el cumplimiento de deberes inexcusables de carácter público, supuesto en el que se comprende la participación en campañas electorales, en las que el funcionario tome parte como candidato.

En la necesidad de que la concesión de tales licencias se produzca con criterio uniforme en todas las Administraciones Públicas Vascas, mediante el presente Decreto se procede a regular su plazo de duración, así como las condiciones a que ha de quedar sujeto su ejercicio.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 2 de octubre de 1990,

DISPONGO:

Artículo Primero.— Los funcionarios al servicio de las Administraciones Públicas Vascas, comprendidos en el ámbito de aplicación de la Ley 6/1989, de 6 de julio, que se presenten como candidatos a elecciones a Diputados y Senadores a Cortes Generales, a elecciones a Diputados al Parlamento Europeo, a elecciones al Parlamento Vasco, a elecciones a las Juntas Generales de los Territorios Históricos, a elecciones para las Asambleas Legislativas de otras Comunidades Autónomas o a elecciones de miembros de las Corporaciones Locales, tendrán derecho a una licencia retribuida durante el tiempo de duración de la campaña electoral.

Artículo Segundo.— La licencia se concederá por el órgano competente de cada Administración, a petición del interesado y previa acreditación de su proclamación como candidato por la Junta Electoral correspondiente.

Artículo Tercero.— El presente Decreto entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Justicia
y Desarrollo Autonómico,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.